

Mutrikuko Udala

Alkate Jaunari

**Gaia: "Dikea Luzatzearen aurka 819 herritarrok bozka eman ondoren eta Europak ere gaia aztertzeke beharra ikusi duenez, Jaurlaritzari obra gelditzeko eskaera"**

Alkate Jauna,

Pasa den Abenduan 18an egindako herri galdeketaren arabera:

- 871 herritarrek bozka eman genuen.
- Horietatik 819k Dikea luzatzearen aurka azaldu ginen.

Horrexegatik, eskertuko genizuke atxikitutako mozioa 2023ko Otsaileko Osoko Bilkurako gai ordenean sartzea.

Mozioaren azalpena eta irakurketa gure taldeko ordezkari batek burutu ahal izatea eskatu nahiko dizugu baita ere.

Zure erantzunaren zain, alde zurea mila esker.

.....  
Danborzaleak taldearen izenean.

Emaila: [danborzaleak@gmail.com](mailto:danborzaleak@gmail.com)

Mutrikun 2023ko Otsailaren 16an



## **MOZIOA: “JAURLARITZARI DIKEAREN OBRAK GELDITZEKO ESKATU”**

....., Mutrikuko Danborzaleak taldearen kide bezala eta honen izenean hurrengo mozioa aurkezten du, Mutrikuko Udaleko hurrengo osoko bilkuran eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.

### **AZALPENA**

Mutrikuko Portu berriaren proiektua aurkeztu zenetik, agintean izan diren Alkate eta alderdi politiko ezberdinek, joera haundia izan duzue, proiektu hau “herritarren gehiengoak” eskatutako gauza bat balitz bezala aurkezteko, berez horrela izan ez denean, besteak beste 2005 urtean, herri galdeketa eske 1000 sinaduratik gora aurkeztuak izan bait ziren.

2022ko Apirilaren 14an prentsan agertutako berrietan, gaur egungo alkateak hitzez hitz dio:

*“Palenzuelak gogoratu du udalak behin eta berriz eskatu duela dikeko lanak amaitzeko, eta ez dela garaia eraikuntza atzera botatzeko”. “Ez du zentzurik aurre agiteak. Herriak eskatu duen zerbait da”. Eta aurrerago “Palenzuelaren susmoa da herriko kirol portuan bostehun amarradura berri ezartzeko asmoa duela”.*

Bestalde, komeni da baita ere gogoratzea, Mutrikuren etorkizuna obra erraldoi honek hobetuko duela hainbeste aldiz defendatu izan duzuenoi, orain artean gastatutako dirutzarekin, Dikea, Kirol portua eta Olatuek sortutako energia planta eraiki, eta 2 lanpostu bakarrik sortu direla. Eta dikea bukatzea bultzatu duzuen bi alderdiok zein Jaurlaritzak, etorkizunerako inolako planik ez duzuela azaldu, eta beste 20 miloi € gastatzeko prest izan arren, ezta beste lanpostu berririk aurreikusi ere.

Hau azaldu eta gero, gogoratu nahi dizugu, 2022ko Irailean aurkeztu genuen mozioan egindako hiru galderak, oraindik inolako erantzunik jaso gabe daudela.

Mozio honetako puntuak hauetxek dira:

**1.- Zein da Udal honen balorazioa 2022ko Abenduaren 16 eta 18an “Dikea luzatu ala ez” egin zen herri galdeketa buruz? Eta, aurrerantzean, PREST al zaudete honelako erabaki estrategikoetan, partehartze-prozesuetaz gain, HERRI-GALDEKETA bultzatzeko?**

**2.- Bestalde, Europako Parlamentuko batzordeak onartu egin du Mutriku Natur Taldeak dikea luzatzeko obren legezkotasunari buruz egindako berrikuspen eskaera. Gogoratu dezagun Europako legeriak Ingurumen-inpaktua Ebaluatzeko Araudia betetzera behartzen duela estatu kide bakoitza, baina hori ez da egin.**

**Horregatik, batetik erreferenduman emaitza errespetatuz (871 bozketatik %94 aurka) eta Europako Parlamentuak lanen legezkotasuna aztertu bitartean, dike luzatzeko obrei MORATORIA bat eskatuko al diozue Eusko Jaurlaritzari?**

**3.- Mutrikuko EH Bildu eta EAJ alderdiei, datozen maiatzeko udal hauteskundeei begira, herriko alderdi bezala, herritarrei argi eta garbi adieraziko al diozue, kanpoko dikearen barrualdean gelditzen den eremua, dagoen bezala utzi eta bainu-gune publiko bezala errespetatua izan dadin Jaurlaritzari exigituko diozuela?**

Mutrikun 2023ko Otsailaren 16an

